

## ASKATASUNEN ALDE, ESKUBIDEEN ALDE

Askatasunak eta eskubideak urraturik eta mehatxaturik daudenean ezinbestekoa da ahotsa altxatzea. Erakunde politikoak legez kanpo uzteko prozesuak planteatzen direnean, oinarrizko eskubideak bertan behera geratzen direnean, hala nola politikan parte hartzeko, elkartzeko eta adierazpen-eskubidea, ezinbestekoa da demokrazia indartzeko eta defendatzeko konpromisoa hartzea. Hau dela-eta, Eusko Alkartasuneko kargu publikoak, gaur, otsailak 16, Gernikan bildu garenok, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Demokrazia gizabanako guztiek berez dituzten eskubideak onartzean eta modu eraginkorrean bermatzean datza. Eskubide horiek, guztiak, lehenengotik hasita, hau da, bizitza-eskubidetik, errespetatzea eta defendatzea obligazio etikoa ez ezik, politikoa ere bada herritar, erakunde eta botere publiko guztientzat. Horregatik egoera guztietan eta pertsona guztientzat eskubide guztien egiazko defentsa eraginkorrarekiko gure konpromiso argia berresten dugu gaur eta horiek urratzen dituztenak salatzeo gure erabaki irmoari ere eusten diogu.
2. Eskubide horien alde bakar baten betetzea azaltzeko, justifikatzeko edo defendatzeko edozein saio zeharo gaitzesten dugu, eta zilegitasun demokratiko osoa ukatzen diogu helburu politikoak lortzeko indarkeriaren erabilpena onartzen duen diskurtso orori.
3. Giza-eskubide guztien defentsa integralak haiekin loturik dauden eskubide zibil eta politikoen garapena ere barne hartzen duelako gure uste osoa adierazten dugu. Zalantzarik ez dago guztiak elkarbizitza artikulatzeko funtsezko eta ezinbesteko piezak direla.
4. Demokrazian funtsezko eskubideetariko baten ondorio den aniztasun politikoa mugatu eta Zuzenbide penalean oinarrizkoak diren berme prozesalak bertan behera uzten dituzten azken bolada honetako ekimen guztien aurka agertzen gara. Erakunde politikoak joko kanpo uzteko eta beren jarduera eteteko prozesuek politikan parte hartzeko, elkartzeko eta adierazpen-eskubideak mugatzen dituzte eta oinarrizko eskubide hauen kontra larriki jotzen dute. Halaber, askatasun ideologikoaren aurkako eraso dira.
5. Argi dugu gizabanako guztiek eskubidea dutela bizitza politiko, sozial eta kulturean aukera-berdintasunean parte hartzeko eta beren proiektuak bide baketsu eta demokratikoen bidez defendatzeko, gizartearen nahikoa babes lortuz gero praktikara eramateko helburuarekin. Ondorioz, terrorismoaren kontrako diskurtsoaren izenean ideiak espetxeratzea gaitzesten dugu. Berme penalek, giza-eskubideak islatzen dituzten neurrian, ekintza zehatzen gaineko norbanakoen erantzukizun kriminalak bereiztea exijitzen dute. Erantzukizun kolektiboa eta generikoa, iritzi-delitua, zaletasun politikoa leporatzea demokraziaren bihotzaren aurka jotzea da eta Estatua horretaz baliatzen da deserosoak izaten zaizkion herritar disidenteak baztertzeko eta beraiez libratzeko. Atea irekitzen zaio Estatu-arrazoiengatik gutxiengoak desagertarazteari.

6. Demokrazia berresteak eta berrindartzeak herritarrei hitza ematea eta beren borondatea, askatasunez adierazita, errespetatzea exijitzen duela jakinarazten dugu. Zentzu honetan, gure erakundeetan islatzen den herri-burujabetza errespetatzea exijitzen dugu eta babes osoa ematen diegu hautetsi guztiei Udaletxeetan, Batzar Nagusietan, Nafarroako Foru Parlamentuan eta Eusko Legebiltzarrean askatasunez eta bazterkeriarik gabe lan egin ahal izan dezaten.
7. Proiektu politiko guztiak, Euskal Herriaren independentzia aldarrikatzen dutenak barne, bide baketsu eta demokratikoak erabiliz defendatzea posible izan dadila exijitzen dugu. Eta gizartearen gehiengoaren babesa, berme demokratiko guztiekin adierazita, baldin badute, proiektu horiek gauzatu ahal izango direla bermatzeko behar diren neurriak har daitezela eskatzen dugu gainera.
8. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko eskubide osoa dutela defendatu eta aldarrikatzen dugu. Demokraziak eta beren kalitatea neurtzeko modurik onenetariko bat gutxiengoak nola tratatzen dituzten aztertzea izaten da. Gutxiengo nazionalak osatzen ditugunok gure helburu zilegiak bideratzeko tresna demokratikoak izateko eskubidea dugu. Bere burua demokratizatzen duen inork ez du isil gaitzela agintzeko zilegitasunik.
9. Euskal Herriak bere erabakiak hartzeko dituen eskubideen defentsa eraginkor eta iraunkor baten aldeko gure konpromisoa adierazten dugu eta bizi dugun gatazka politikoaren konponbideari heltzeko oinarria elkarrizketa eta giza-eskubideen errespetua direla berresten dugu. Konponbidea demokrazia gehiago delako, parte-hartze handiagoa, eskubideak gehiago eta hobeto erabiltzea, norbanakoenak zein kolektiboak eta, beraz, autodeterminazio-eskubidea ere bai.
10. Norbanakoen eskubideak erabiltzean modu baketsuan eta demokratikoki lanean jarrai dezatela eskatzen diegu herritarrei, gure herrian bakea eta normalizazio politikoa lehenbailehen errealitate bihurtzea lortzeko. Eusko Alkartasuneko gizon-emakumeok gure esku dagoen guztia emango dugu hori erdiesteko.